

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

## GIZARTE POLITIKEN, ADINEKOEN ETA HAURREN SAILA

## Garapenean Laguntzeko Zerbitzua

**2022. Urteko Garapenean laguntzeko proiektuetarako lehen dirulaguntza-deialdiko PT ataleko behin betiko proiektuen fasearen ebazpena**

2022ko urtarrilaren 21ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022an garapenean laguntzeko dirulaguntzak emateko lehen deialdia arautzeko berariazko oinarriak, hiru ataletan banatuta. Hirugarrena, PT atala, honela dago definituta:

a. PT atala: Gehienez sei hilabeteko epean gauzatzekoak diren proiektu txikiak. Zuzkidura ekonomikoa: 80.000,00 euro.

Oinarrien arabera, proiektuak aurkeztu eta hautatzeko prozedura hiru fasetan banatua dago:

- Proiektuen alde aurreko hautaketa, laburpen-agirian oinarrituta.
- Aldez aurretik hautatutako proiektuen behin betiko formulazioa.
- Behin betiko proiektuak aurkeztea eta eskabideak ebaztea.

2022ko martxoaren 30ean, lehen fasea ebatzi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta sei proposamen hautatu, alde aurrez.

PT atalaren behin betiko ebazpen-proposamen azaltzea du helburu txosten honek.

Proiektuak Aurkezteko Epea.

2022ko ekainaren 3a finkatu zen deialdiaren oinarrietan behin betiko proiektuak aurkezteko azken eguntzat.

Aurkeztutako Eskabideak.

Epe hori bukatu zelarik, garaiz eta behar bezala aurkeztu ziren 2022ko martxoaren 30ean alde aurretik hautatutako sei proposamenak, taula honetan ageri direnak:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	HERRIALDE	ESKATUTA (€)
Gasteiz Iparraldeko Ekintza GKE	Suhiltzaileen kidegoak indartzea	Nikaragua	20.000,00
Saharako irribarreak elikatzen	Aukerak ehunten (Saharako kanpalekuak)	Argelia	20.000,00
Jambo Congo	Ikasgela berri bat eraikitzea eta Kakutyako lehen hezkuntzako eskolan funtzionatzeko beharrezkoak diren altzariak erostea	RDC	18.751,11
SOLIVE- Asociación Solidaridad Vedruna	Fond Parisien-en kalitatezko osasun-arretaren alde	Haití	20.000,00
ASVE-Euskal Herriko eta Ekuadorreko Elkartasuna	Birziklapena eta ehun-diseinu jasagarria: tokiko garapenerako estrategia bat emakume-taldeentzat	Ekuador	19.680,00
Sunu Gaal	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	9.991,91
<b>ESKATUTAKOIA GUZTIRA</b>			<b>108.423,02</b>

Deialdiko betekizunak betetzea.

Egiaztatu da sei eskabideek betetzen dituztela deialdiaren 7. oinarrian adierazitako betebeharrak eta hirian presentzia, egitura eta jarduera edukitzeari dagokionez 6.1 eta 6.3 puntuetan adierazitakoa, hau da, oinarrien 1. eranskinean —presentzia eta jardunari dagokionez— adierazten zirenen artetik betetzen diren lau zehaztu eta dokumentatzea.

Proposamenen balioespena.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuko bi teknikariek berrikusi eta ebaluatu dituzte behin betiko dokumentuak. Eskabide bakoitzeko fitxa bat egin dute, eta proiektuak oinarrien 4. eranskinean jasotako baremazioaren arabera balioetsi.

Puntuazio hauek lortu dituzte proiektuek:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	HERRIALDE	PUNTAZIOA (%)
Saharako irribarreak elikatzen	Aukerak ehuntzen (Saharako kanpalekuak)	Argelia	75,6
SOLVE- Asociación Solidaridad Vedruna	Fond Parisien-en kalitatezko osasun-arretaren alde	Haiti	74,5
ASVE-Euskal Herriko eta Ekuadorreko Elkartasuna	Birziklapena eta ehun-diseinu jasangarria: tokiko garapenerako estrategia bat emakume-taldeentzat	Ekvador	61
Sunu Gaal	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	59,33
Jambo Congo	Ikasgela berri bat eraikitzea eta Kakutyako lehen hezkuntzako eskolan funtzionatzeko beharrezkoak diren altzariak erostea	RDC	57,75
Gasteiz Iparraldeko Ekintza GKE	Suhiltzaileen kidegoak indartzea	Nikaragua	50

Dosierrean, puntuazioen taula eta fitxa xehatuak erantsi zaizkio txosten honi.

Eskabide guztiek betetzen dute lehen deialdiaren oinarrietan jasotako onespren-betekizuna:

“24.11 (...) PT atalaren kasuan, ezingo dira onetsi ehuneko 50etik beherako puntuazioa lortu duten proiektuak”

PT Atala Ebazteko Zuzkidura Ekonomikoa.

PT atal honetarako aurreikusitako zuzkidura ekonomikoa 80.000,00 eurokoa zen. Hala ere, honela aurreikusi zen deialdiaren 5.2 oinarrian:

“5.2. Baldin eta atalen bateko diru-kopurua agortzen ez bada, gainerako ataletako eskabideei erantzuteko baliatu ahal izango da esleitu gabeko kopurua, oinarri hauetan finkatzen diren betebeharrak betetzen eta puntuazioak lortzen direlarik”

Lehen deialdiko UKA atalak, Urteko proiektu kateatuak, oinarrien arabera, 80.000 euroko zuzkidura bazuen ere, Gobernu Batzarraren ekainaren 17ko ebazpenean guztira 37.530,34 euroko dirulaguntzak eman ziren, eta, hortaz, 42.469,66 euroko soberakina sortu zen.

Horrenbestez, PT ataleko zuzkidura 28.423,02 handitzea proposatzen da, UKA ataleko soberakin horren kontura; hartara, guztira 108.423,02 euroko dirulaguntza emateko betekizuna betetzen duten sei proiektuetarako.

Beraz, dirulaguntza hauek ematea proposatzen da:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	HERRIALDE	ESKATUTA (€)
Gasteiz Iparraldeko Ekintza GKE	Suhiltzaileen kidegoak indartzea	Nikaragua	20.000,00
Saharako irribarreak elikatzen	Aukerak ehuntzen (Saharako kanpalekuak)	Argelia	20.000,00
Jambo Congo	Ikasgela berri bat eraikitzea eta Kakutyako lehen hezkuntzako eskolan funtzionatzeko beharrezkoak diren altzariak erostea	RDC	18.751,11
SOLVE- Asociación Solidaridad Vedruna	Fond Parisien-en kalitatezko osasun-arretaren alde	Haiti	20.000,00
ASVE-Euskal Herriko eta Ekuadorreko Elkartasuna	Birziklapena eta ehun-diseinu jasangarria: tokiko garapenerako estrategia bat emakume-taldeentzat	Ekvador	19.680,00
Sunu Gaal	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	9.991,91
<b>ESKATUTAKOIA GUZTIRA</b>			<b>108.423,02</b>

Lehen deialdian erabilgarri dagoen soberakinaren kalkulua.

PT ataleko ebazpen-proposamenak berekin dakar deialdian erabilgarri dagoen soberakina murriztea:

EAP ebazpenak sortutako soberakina	42.469,66
PT atalari aplikatutako zenbatekoa	28.423,02
PAE eta PT sekzioak ebatzi ondoren ateratzen den soberakina	14.046,64

Soberakin hori, bada, 14.046,64 eurokoa izango da.

Kontuan hartu dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horren araudia onetsi zeneko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta orobat Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23. artikulua eta hurrengoak eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza, zeini 2005eko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran eman baitzion hasierako onespena Gasteizko Udalbatzak, eta 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAOn (5. zenbakia.) argitaratu baitzen.

Halaber, kontuan hartu dira Gasteizko Udaleko Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina eta helburu estrategikoak.

Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko zinegotzi ordezkariak — aintzat harturik eskumenak eskuordetzeko alkatearen 2019ko ekainaren 21eko dekretua, Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 artikulua eta Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 127.1.g) artikulua —, proposamen hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari,

#### Ebazpen-Proposamena

1. 2022an garapenean laguntzeko dirulaguntzak emateko lehen deialdia PT ataleko behin betiko proiektuen fasean aurkeztutako sei proposamenak diruz laguntzea, zenbateko hauekin:

ERAKUNDE ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	HERRIALDE	ESKATUTA (€)
Gasteiz Iparraldeko Ekintza GKE	Suhiltzaileen kidegoak indartzea	Nikaragua	20.000,00
Saharako irribarreak elikatzen	Aukerak ehuntzen (Saharako kanpalekuak)	Argelia	20.000,00
Jambo Congo	Ikasgela berri bat eraikitzea eta Kakutyako lehen hezkuntzako eskolan funtzionatzeko beharrezkoak diren altzariak erostea	RDC	18.751,11
SOLIVE- Asociación Solidaridad Vedruna	Fond Parisien-en kalitatezko osasun-arretaren alde	Haiti	20.000,00
ASVE-Euskal Herriko eta Ekuadorreko Elkartasuna	Birziklapena eta ehun-diseinu jasangarria: tokiko garapenerako estrategia bat emakume-taldeentzat	Ekuador	19.680,00
Sunu Gaal	Berdintasunerako hezkuntza	Senegal	9.991,91
<b>ESKATUTAKOIA GUZTIRA</b>			<b>108.423,02</b>

2. PT atalari dagokion ebazpen honen ondorioz — eta UKA, Urteko proiektu kateatuak, atalaren 2022ko ekainaren 17ko ebazpenaren ondorioz —, 2022an garapenean laguntzeko dirulaguntzak emateko lehen deialdiaren zuzkiduraren kontura erabilgarri dagoen zenbatekoa 14.046,64 eurokoa da.

3. Deialdi honetan emandako dirulaguntzak ALHAOn argitara daitezela agintzea, iragarrian onuraduna, emandako zenbatekoa eta Gasteizko Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzaren 14. artikuluan xedatutako gainerako informazioa zehaztuta. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikulurekin bat etorriz.

4. Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkezteko erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko uztailaren 15ean

*Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Administrazio Zerbitzuen burua*  
**ROSA ANA URTARAN URTARAN**